



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

**CELSO RODRÍGUEZ PADRÓN, BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU
NAGUSIKO IDAZKARI NAGUSIA,**

**ZIURTATZEN DUT: BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO
OSOKO BILKURAK, DATA EGUNEKO BERE BILERAN, KARGUKO
OSAGARRI OROKORRAREN ARABERA, OSAGARRI ZEHATZAREN
HASIERAKO IZENDAPENAREN ARABERA ETA BESTE FUNTZIO
BATEN BATERAKO JARDUERA ERAGITEN DUTEN ORDEZKETAK
DIRELA ETA EMATEN DIREN ORDAINEN ARABERA, IDAZKARI
JUDIZIALEN KIDEGOARI ATXIKITUTA DAUDEN POSTU MOTAK
ZEHAZTEN DITUEN ERREGE DEKRETUAREN PROIEKTUAREKIKO
TXOSTENA ONARTU DUELA, HITZETZ HITZ, EDUKIA ONDORENGO
HAU IZANIK:**

I.

AURREKARIAK

2007ko azaroak 23ko datarekin, Justizia Ministerioaren Estatu Idazkaritzatik datorren *karguko osagarri orokorraren arabera, osagarri zehatzaren hasierako izendapenaren arabera eta beste funtzio baten baterako jarduera eragiten duten ordezketak direla eta ematen diren ordainen arabera, Idazkari Judizialen Kidegoari atxikituta dauden postu motak zehazten dituen Errege Dekretuaren proiektuak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusi honetako Erregistroan sarrera izan zuen, Botere Judizialeko Lege Organikoaren 108. artikulua jasotzen duenaren arabera txostena igorri ahal izateko helburuarekin.*

Ikerlan eta Txostenen Batzordeak 2007ko azaroak 29 datako bere bileran, On Javier Laorden Ferrero Jaun Gorena txostengile bezala izendatzea erabaki zuen, hala nola igorlea den Organoaren bitartez



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

emandako epealdiaren 15 eguneko luzapen bat eskatzea erabaki zen bezala, hau, bere igorpena Kontseiluaren osoko bilkuren egutegira bere igorpena egogitzeko asmoarekin.

Ikerlan eta Txostenen Batzordeak, 2007ko abenduak 12 egunean ospatutako bere bileran txostenaren eztabaidari eta onarpenari hasiera eman zion, Osoko Bilkurara bere igorpena aurkeztuz.

II.

BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN KONTSULTA ESKUDUNTZAREN GAINEAN AURRETIAZKO HAUSNARKETAK

Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak duen kontsulta funtzioa, aurrean dugun kasu honetan zuzenki zehaztua dator Botere Judizialeko Lege Organikoaren 108.1, d) artikuluan jasotzen denaren arabera, zeinek lege aurreproiektuen gainean informazioa emateko funtzioa eta Estatuko eta Autonomia Erkidegoen xedapen orokorren gainean informazioa emateko funtzioa haren esku uzten dituen, hain zuzen ere Estatuaren lege aurreproiektu horietako eta xedapen orokor horietako Idazkari Judizialen eta Justizia Administrazioan zerbitzuan ari den gainontzeko langilegoaren Estatutu Organikoa guztiz edo partzialki eragiten dituztenak.

Aurrean dugun Errege Dekretu honen helbururik garrantzitsuena lanpostu mota ezberdinen aurretik egiten den zehaztapena da, zeintzuk, behin izango diren Lanpostu Zerrendetan sartuta egonik (LPZ), lanpostuaren osagarri orokorren zehaztapenerako arau bezala balio izango duten, hala nola, Idazkari Judizialen ordain osagarrietako beste kontzeptu batzuetan egiten diren jazoera eraginkorra duten aurreikuspenak, hain zuzen ere beraien estatutu profesionalean kokatzen



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

direnak noski eta beraz, Organo honen bitartez jakinarazi behar direnak.

Beste alde batetik, proiektatutako arauak ezartzen duen elkarrekikotasuna lanpostu mota ezberdinen artean eta ordain osagarrien maila ezberdinen artean, era berean Bulego Judizial berriaren itxura orokorrean eragina du, eta honek era berdinean baita ere Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren arreta eskatzen du, hau hain zuzen ere BJLOko 108.1, e) artikuluan aurreikusten denarekin adostasunean eta izan ere *Epaitegi eta Auzitegien eraketa, antolaketa, funtzionamendua eta gobernuaren eragiten dituzten* beste edozein arau batzuen gainean edo xedapen orokorren gainean informazioa emateko gaitasuna ematen dioelarik.

III.

PROIEKTUAREN EGITURA ETA EDUKIA

Txostenean jasotzen den igorritako testua Zioen Azalpen batekin, bost artikulurekin, bi xedapen gehigarriekin, lau xedapen iragankorrekin, xedapen indargabetzaile batekin eta bi azken xedapenekin osatzen da. Era berean bost Eranskinek laguntzen dute, Justifikazioko Memoria hedatu batek, Txosten Ekonomiko batek eta Genero Eraginari buruzko halabeharrezko txosten batek ere.

1go artikulua arauaren helburua eta aplikazio esparrua zehazten du, zein hain zuzen ere ez da bulego judizialak eta postuaren osagarri orokorraren eraginaren arabera Idazkari Judizialen Kidegoko funtzionarioei atxikitutako beste zerbitzu ez jurisdikzional batzuk osatzen duten unitate ezberdinen lanpostu mota ezberdinak zehaztea baino, hala nola egoki diren osagarri zehatzen hasierako izendapena eta beste funtzio baten elkarrekikotasun gauzapena eragiten dituzten ordezketak direla eta



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

ematen diren ordainak.

2. artikulua bakoitzari dagokion osagarri orokorren zehaztapenerako balio izango duten bost lanpostu mota ezberdinak definitu eta sailkatzen ditu.

3. artikulua II Eranskinera igortzen gaitu, non lanpostuaren osagarri orokorraren balorazio maila zehazten da, eta baita ere Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea, hain zuzen ere bere kuantifikazioari dagokionez, era berean, osagarri hau gainontzeko funtzionarioen ordainekiko modu berdintsu batean eta jardute bakoitzean eguneratuko dela adieraziz.

4. artikulua osagarri zehatzak arautzen ditu beraien hasierako izendapena III, IV eta V Eranskinetara igortzearen bitartez finkatuz.

5. artikulua, beste funtzio baten baterako jardura eragiten duten ordezketen kontzeptuari dagokion ordaina zehazten du eta baita ere bere oinarritzko erregimena arautu.

Lehenengo Xedapen Gehigarriak EDan eta bere Igo Eranskinaren biztanleria taldeen ordain zenbatekoaren egunerakotasun erregimena finkatzen du.

Bigarren Xedapen Gehigarriak Justizia Ministerioan bere jardura burutzen duten Idazkari Judizialen ordain erregimena ezartzen du.

Lehen Xedapen Iragankorrak gaur egun irailak 5eko 1130/2003 EDan zehaztutako ordain osagarrien ultrairaualdia aditzera ematen du, hau Idazkari Judizialen egokitze prozesuak eta beraien izendapena



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

amaitutzat eman arte, hain zuzen ere Bulego Judizial eredu berriarekin adostasunean onartzen diren LPZetan barne sartuak dauden lanpostuak burutu ahal izateko; bigarren Xedapen Iragankorrek alderantziz, proiektatutako arauaren aplikazioa agintzen du Gobernu Idazkaritzako, Probintzia Koordinatzaile Idazkaritzako, Justizia Ministerioan lanpostua duten Idazkari Judizialeko eta Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegi bakar bat duten barruti judizialean lanpostua duten Idazkari Judizialeko lanpostuetara bere indarrean sartzetik izan ere.

Hamahirugarren Xedapen Iragankorrek, konfirmazio kasuetan edo lanpostu baten atxikimendu kasuetan zehazten diren ordain osagarrien zenbatekoaren mantenimendua agintzen du, hain zuzen ere aipatu diren osagarri horien zenbatekoa murriztua ikusi dezaketen Idazkari Judizial haientzat, borondatezko izaera ez duen lanpostu batetara atxikitutako kasuetan, lanpostuaren borondatezko aldaketa bat ematen ez den bitartean.

Laugarren Xedapen Iragankorrek, Gran Kanaria eta Tenerifen lanpostua duten Idazkari Judizialek 4.3 artikuluan eta V Eranskinean aurreikusten den osagarri zehatzaren 2008 eta 2009 urteen bitarteko mailaz mailako gorakada erregimena ezartzen du.

Xedapen Indargabetzaileak espresuki indargabetuak bezala aditzera ematen ditu 5, 6 eta 10. artikuluko eta irailak 5eko 1130/2003 EDko zazpigarren Xedapen Gehigarria, hala nola aurrean dugun EDan aurreikusten denaren aurka agertzen diren edo ezeztatzen duten edozein maila berdineko edo maila txikiagoa duten xedapenak ere indargabetutzat ematen dituen bezala.

Lehen Azken Xedapenak Ministerio Ordenaren bitartez eta Justizia



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Ministerioaren eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren elkarren arteko proposamenaren bitartez, Errege Dekretu honetan aurreikusten diren ordain kontzeptuen nomina akreditaziorako beharrezkoa den justifikazio dokumentazioa arautuko dela ezartzen du.

Bigarren Azken Xedapenak bere indarrean sartzea Estatuko Aldizkari Ofizialean bere argitalpenetik hurrengo egunean ezartzen du.

Labur esanda, araua, helburu bezala, irailak 5eko 1130/2003 EDan arautzen den Idazkari Judizialen Kidegoak duen eta indarrean dagoen ordain sistema abenduak 23ko 19/2003 LOaren bitartez eratutako Bulego Judizial berriaren diseinu eta antolamendura eta bereziki aipatu berri den arau horren BJLOko 447 eta 448 artikuluetan barne sartu zituen ordain gaien gaineko aginte zehatzetara egokitzea lortzea proposatzen da.

Indarrean dagoen 1140/2003 EDak konplimendua eman zion maiatzak 26ko 15/2003 Legeko hirugarren Azken Xedapenari, berau Karrera Judizial eta Karrera Fiskalaren ordain erregimena arautzen duena, eta jasotako legezko agintearekin adostasunean, Idazkari Judizialen Kidegoaren ordain erregimena jardunean zegoen legeak Epaille eta Fiskalei aplikatzea agintzen zuen ordain printzipio eta kontzeptuetara egokitu zuen. Modu honetan, ordain finkoa eta aldakorrak bereizten ditu eta finioen barruan hain zuzen ere oinarrizko ordainak – soldata eta antzinatasuna- eta osagarriak diren ordainak. Osagarriak diren ordainak gaur egun lanpostu mailaren osagarria eta zehatza dira.

19/2003 LOak bestalde, ordain kontzeptuen egokitasuna soilik oinarrizko ordainetara mugatzea agintzen du, modu honetan Idazkari Judizialen Kidegoaren osagarriak diren ordainen egituraren aldaketa garrantzitsu bat barne sartuz, hain zuzen ere lanpostu mailako



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

osagarriaren desagerpenaren bitartez, lanpostuaren osagarri orokorraren barne sartzearen bitartez eta Bulego Judizial berriaren lanpostuen antolaketara egokitutako osagarri zehatz baten ezarpenaren bitartez.

Informatutako proiektua, Idazkari Judizialen ordain erregimena Bulego Judizial eredu berri honetara egokitzea proposatzen da, nahiz eta bere aplikazio esparrutik, alde batetik, beraien jurisdikzioa lurralde nazional guztira zabaltzen duten organo jurisdikzionaletan Idazkari Judizialen Kidegora atxikituta dauden lanpostuak alde batera uzten dituen – hain zuzen ere Auzitegi Gorena, Auzitegi Nazionala eta Epaitegi Zentralak - zeintzuk iadanik bere egunean urriak 18ko JUS/3244/2005 Ordenatik ere kanpo geratu ziren, eta izan ere zeinen bitartez organo judizialei Laguntza Zuzeneko Unitate Prozesaleko oinarrizko ematea zehazten den, eta beste alde batetik ordean, Auzitegi Konstituzionalean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian eta Mutualitate Orokor Judizilean, Idazkari Judizialen Kidegoari lotuta dauden lanpostuak, izan ere aurrekontuetan autonomia duten erakundeak izateagatik.

Aurrean dugun txosten honek, azalpenei dagokienez, proiektatutako arauak eragiten duen Idazkari Judizialen Kidegoak dituen hiru ordain kontzeptuek adierazten duten ordena jarraituko du.

IV.

LANPOSTU MOTA, LANPOSTUAK DUEN OSAGARRI OROKORRAREN ZEHAZTAPENAREN ARABERA

Orain txostenean jasotzen ari garen testuak kontuan hartzen duen aldaketarik garrantzitsuena da hau. Aldaketa hau hain zuzen ere BJLOko 448.3 artikulua jasotzen duen legezko aginduan kausatzen da, izan ere 19/2003 LOak eman zioen idazketan eta hain zuzen ere hurrengo hau



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

adierazten duena: *“Gobernuaren bitartez, errege dekretu bitartez eta Justizia Ministroaren eta Ogasun Ministroaren arteko elkarreko proposamenaren bitartez, idazkari judiziletara atxikitzen diren lanpostu mota ezberdinak zehaztuko dira, hau lanpostuaren osagarri orokorraren arabera, baita ere dagozkien osagarri zehatzen hasierako izendapena eta beste funtzio baten elkarrekiko jarduera eragiten duten eta ordezketak direla eta ematen diren ordainak”.*

Lanpostuaren kokalekua dela eta ematen den osagarriaren ezabapena eta bere ordezkapena lanpostuaren osagarri orokorra dela eta, era berean BJLOko 447.3 artikuluan ezartzen den ordain osagarrien egitura berriaren ondorio bat da, hain zuen ere ordain kontzeptu hauek lau mota ezberdinetan sailkatzen dituelarik:

a.- Lanpostuaren osagarri orokorra, horien ezaugarri orokorrak ordaintzen dituena.

b.- Osagarri zehatza, bakarra lanpostu bakoitzerako eta horiek dituzten baldintza bereziak ordaintzera zuzentzen dena.

c.- Produktibitate osagarria.

d.- Haborokinak.

Lanpostuko osagarri orokor berriaren zenbatekoa dagokion Aurrekontuen Lege Orokorretan burutuko da, baina horretarako Bulego Judizialaren unitate ezberdinetako lanpostuen eta Idazkari Judizialen Kidegoaren funtzionarioak direnei atxikituta dauden eta jurisdikzionalak ez diren zenbait zerbitzuen alde zuzentzen den zehaztapen bat kontuan hartu beharra egongo da, hain zuzen ere dagokion kopuru ekonomikoa



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

gauzatzeko euskarri bezala balio izango duena.

Osagarriaren izendapenaren arabera garrantzia duen lanpostuaren tipologiaren arkitektura proiektatutako arauak duen 2. artikuluan gauzatzen da eta bost maila bereizten ditu bere Igo Eranskinean jasotzen den biztanleria taldeen arabera.

I Mota.- Biztanleria 1go Taldeko herrietan kokatzen diren bulego judizialen unitateetara atxikitzen diren lanpostuak, hain zuzen ere Madrid eta Bartzelona soilik barne hartzen dituenak.

II Mota.- Biztanleria 2. Taldeko herrietan kokatzen diren bulego judizialen unitateetara atxikitzen diren lanpostuak, hain zuzen ere Valentzia, Sevilla, Zaragoza, Málaga, Murtzia, Las Palmas (Kanaria Handikoa), Palma de Mallorca, Santa Cruz de Tenerife eta Bilbo barne hartzen dituenak.

III Mota.- Biztanleria 3. Taldeko herrietan kokatzen diren bulego judizialen unitateetara atxikitzen diren lanpostuak, hain zuzen ere Valladolid, Kordoba, Vigo, Alacant, Gijón, Hospitalet de Llobregat, Granada, La Coruña, Gasteiz, Badalona, Oviedo, Móstoles, Elx, Sabadell, Santander, Jerez de la Frontera, Iruña, Donostia, Cartagena, Leganés, Fuenlabrada, Almería, Tarrasa, Alcalá de Henares, Burgos, Salamanca, Albacete, Getafe, Cádiz, Alcorcón, Huelva, Logroño, Cáceres, Pontevedra, Santiago de Compostela, Castellón de la Plana, Badajoz, San Crsitóbal de la Laguna eta Leon barne hartzen dituenak.

IV Mota.- 1608/2005 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Idazkari Judizialen Kidegoko Erregelamendu Organikoaren 78. artikuluko Lehenengo eta Bigarren Taldeetako bulego judizialen unitateetara



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

atxikitzen diren lanpostuak, hain zuzen aurreko biztanleria taldeetan barne sartzen ez direnak.

Enunziatu honek hain zuzen ere Gobernu Idazkari lanpostura igortzen gaitu, Probintziako Koordinatzaile Idazkari lanpostura, Justizia Auzitegi Nagusiko Sala Idazkari lanpostura, Probintzia Auzitegi Idazkari lanpostura, Zerbitzu Orokor Porzesaletako Idazkari Nagusiaren lanpostura eta LPZetan zehazten diren eta aipatu berri izan diren Zerbitzu Orokor Prozesal horietako beste lanpostu haietara, eta baita ere Magistratuak zerbitzuan dauden organo judizialeko ZLUPtako lanpostu guztietara.

V Mota.- 1608/2005 Errege Dekretuaren bitartez onartua izan zen Idazkari Judizialen Kidegoko Erregelamen Organikoaren 78. artikulua Hirugarren Taldeko bulego judizialen unitateetara atxikitzen diren lanpostuak.

Enunziatu honek hain zuzen ere Epaileek zerbitzua ematen duten organo judizialeko ZLUPtako lanpostuetara igortzen gaitu, eta aurreko Taldean barne sartzen ez ziren Zerbitzu Orokor Prozesal haienak ere, modu honetan LPZetan zehazten denean.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ustez, informatutako arauari hain zuzen ere ez dago inolako eragozpenik egiterik gai honi dagokionez, zeren eta izan ere BJLOak lanpostuetako osagarrien ordain maila duten ezaugarri orokorren arabera finkatuz ezartzea agintzen badu, ez du inolako eragozpenik eragiten sailkatzea erabaki den eta era berean osatzen duten bost maila ezberdinak bakoitza atxikitzen zaion Bulego Judizialeko unitatea oinarritzen den biztanleriaren garrantziaren lehentasunezkoa den datuaren arabera eta bakoitzak duen ezaugarri funtzional oinarrizkoak kontuan hartuz egokitzea. Biztanleria Taldeen



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

beharrezko egokitzapena errealitate demografikora lehenengo Xedapen Gehigarrian bermatzen da, izan ere Gobernuari, ofizial bezala eman izandako udaleko erroldaren berrikustetik ondorioztatzen diren biztanleria kopuruekin bere eguneratzea agintzen dioena.

Nabarmentzea dago beste alde batetik ere, proiektatutako ereduak ez dituela funtsean gaur egun lanpostuaren osagarriaren zehaztapena arautzen duten biztanleria taldeak aldatzen, Bulego Judizialaren eskema berrira ordain osagarrien beharrezko egokitzapenaren barruan posible den jarraipenik handiena aurkitu nahian. Zentzu horretan, Idazkari Judizialaren mailari egiten den edozein aipamenaren lanpostu maila ezberdinen zehaztapenean ezabapena – izan ere 1130/2003 EDaren II.1 Eranskinaren 4 eta 5 Taldeetako definizioan gaur egun egiten den aipamena - ez da Idazkari Judizialen Kidegoko Erregelamendu Organiko berriaren ondorio natural eta ezinbesteko bat baino, hain zuzen ere 1608/2005 Errege Dekretuaren bitartez onartuan eta 19/2003 LOaren garapenean, Idazkari Judizialen Kidegoko hiru mailak maila pertsonalean bihurtu zituenak eta horiei atxikitutako lanpostuak beraien izaeraren eta funtzioen arabera definitutako hiru taldetan sailkatu zituenak – 1608/2005 ED, 78. artikulua.

V.

OSAGARRI ZEHATZAK: HASIERAKO IZENDAPENA

Osagarri zehatza bakarra da lanpostu ezberdin bakoitzarentzat eta horren baldintza bereziak ordaintzera zuzendua dago, hau hain zuzen ere BJLO 447.3, b) artikuluekin adostasunean. Proiektatzen den EDak helburu bezala bere hasierako izendapena zehaztea du eta hau, hain zuzen ere, BJLO 448.3 artikulua betez, eta helburu horretara eskaintzen du bere 4. artikulua, bere III Eranskinera igortzen duena, non lanpostu



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

mota ezberdinak kontuan hartuz eta aldi berean IV Eranskinean zehazten diren ordain maila batzuk kontuan hartuz zenbatzen da.

III Eranskinak lanpostuak osagarriaren kuantifikazioa kontuan hartuz hurrengo hauen arabera egituratzen ditu:

a.- Zuzendaritza postuak: Gobernu Idazkaria, Probintzia Idazkari Koordinatzailea, Prozesuaren edo Betearazpen Zerbitzu Orokorreko Antolaketa Zerbitzu Orokorreko Idazkari Zuzendaria, Zerbitzu Orokor Nagusiko Idazkari Zuzendaria eta Zerbitzu Prozesal Orokor Bakarreko Idazkari Zuzendaria.

b.- Buruzagitzak: Sail eta Talde-Buru diren Idazkari ezberdinak bereiztuz beraien unitateak garatzen duen jarduera mota kontuan hartuz.

c.- Zerbitzu Prozesal Orokorretan eta ZLUPetan buruzagitza prestatuta ez daramaten postuak.

d.- Jurisdikzionalak ez diren zerbitzuetara atxikitutako Idazkariak – Erregistro Zibil Nagusia, Erregistro Zibil Bakarra eta Justizia Ministerioa.-

Proiektatutako arauak osagarriaren hasierako izendapena lanpostuaren ezaugarrietara egokitzen saiatzen da. Horretarako, ordain kontzeptu honetan, gaur eguneko lanpostuko osagarriaren osagaiak ordezkapen kontzeptu bezala barne sartzeari ekiten dio, hain zuzen ere 1130/2003 EDaren II.2 Eranskinean jasotzen direnak, II.3 Eranskinak jasotzen dituen baldintza bereziengatik, hala nola, osagarri zehatza merezimendua irabazi duen arauaren III Eranskinean jasotzen den erantzukizunagatik eta nekeziagatik. Laburbilduz, proiektatutako arauak osagarri bereziaren hasierako izendapena, ordezkapen baldintza



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

objetiboak kontuan hartuz eta lanpostu bakoitzaren erantzukizun, nekezia eta arduraldiaren arabera egiaztatzen du, eta hau dela eta, honek faboragarria den txosten bat merezi du.

VI.

BESTE FUNTZIO BATEN ELKARREKIKO JARDUERA ERAGITEN DUTEN ORDEZKAPENAK DIRELA ETA EMATEN DIREN ORDAINAK

Proiektuko 5. artikuluan, hain zuzen ere indarrean dagoen 1130/2003 EDaren 10. artikulua ordezkatzeko duena, eta izendapen baldintza orokorrak mantenduz jasotzen dira. Modu honetan, 10 egun jarraian gainditzen ez dituzten ordezkapenek eta ordaindutako oporraldi bat dela eta sortzen direnak, uda sasoa izan edo ez izan, ez dutela beraien sortzapenerako eskubidea emango ezartzen da.

VII.

ORDAIN KONTZEPTU BERRIEN JARRAIKO EZARPENA

Proiektatutako arauaren lehenengo eta bigarren Xedapen Iragankorren bitartez ezartzen da eta Justizia Administrazioaren antolaketa eskema berriaren funtzionamenduan jartzeak ezaugarritu beharko lukeen ezinbesteko gehikortasunari men egiten dio. Hasiera batean, gaur egun 1130/2003 EDan aurreikusten diren ordain osagarriak sortzen jarraituko dira Bulego Judizial berriko lanpostuetan jardun izateko Idazkari Judizialen egokitzapen eta izendapen prozesuak amaitutzat eman arte. Soilik Justizia Ministerioan lanpostua duten Gobernu Idazkariek, Probintzia Idazkari Koordinatzaileek, Idazkari Judizialek eta Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegi bakar bat duten barruti judizialean lanpostuak dutenek beraien zerbitzuak ordainduak ikusi ahal izango



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

dituzte hain zuzen ere proiektatutako araua kontuan hartuz eta izan ere bere indarrean sartzeko une beretik. Esatea dago neurri hau zentzuzkoa eta egokia dela, kontuan hartuz Bulego Judizialaren hasierako hedatzean Gobernu Idazkariak eta Probintzia Koordinatzaileak bete beharreko eginkizuna.

VII. ONDORIOAK

Txosten honetan jasotzen den Errege Dekretuak duen proiektua, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ustetan, modu egoki batean garatzen du BJLOko 448.3 artikulua agintea, eta hau dela eta faboragarria den balorazio bat merezi du.

Hau da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak aditzera eman beharreko guztia.

Eta horrela jasota geratu dadin eta eragina izan dezan, aurrean dugun hau luzatu eta sinatzen dut Madrilan, bi mila eta zazpi urteko abenduak hemeretzian.